

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

R 17/2012 ebazpena  
17/2010 espedientea.

Gasteizen, 2012ko azaroaren 29an.

Carlos Palao Taboada presidente jaunak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunek osatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak honakoa

## ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari planteatutako gatazkari buruzkoa, 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---1) eta 2. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---2) 2002ko eta 2003ko ekitaldietako sozietateen gaineko zerga dela eta. Izan ere, gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 17/2010 espediente zenbakiarekin.

## I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau planteatu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari tekniko nagusiaren 2010eko maiatzaren 20ko idazki baten bitartez. Idazki hori biharamunean sartu zen Arbitraje Batzorde honetan. Idazki horretan jakinarazten da 2010eko maiatzaren 18an Aldundiko Ogasun zuzendari nagusiak erabaki zuela gatazka bat aurkeztea Arbitraje Batzordean ebazpen honen idazpuruan aipatzen den gaiari buruz. Erabaki horren kopia gehitu dugu. Bizkaiko Foru Ogasunaren ohiturari jarraituz, aipatutako idazkiari gehitu zaizkio Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2010eko maiatzaren 18ko proposamena eta Ikuskapen Zerbitzuaren txostenak, zeinak proposamen horren oinarri izan baitira. Halaber, aurretik zegoen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

espedientea ere gehitu da, zeina, proposamenak dioen bezala, erreklamazioa oinarritzeko aurrekarien eta arrazoiketen iturria baita.

## 2. Espedientetik, honako aurrekariak heldu dira:

- 1. ERAKUNDEAK (IFZ: ---1) eta 2. ERAKUNDEAK (IFZ: ---2) talde finkatu bat osatzen zuten. Talde horretan lehenengoa zen entitate nagusia. Talde horrek 1994tik 2003ra bitarte (2003ko urriaren 31n itxitako ekitaldia) Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudiaren arabera ordaindu zituen zergak.

- 2007ko ekainaren 13an, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak (ZAEA) Euskadin duen Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskapen Bulegoak ikuskatze-egiaztapeneko jarduketak hasi zituen 1. ERAKUNDEAREN eta 2. ERAKUNDEAREN 2002ko eta 2003ko ekitaldietako sozietateen gaineko zerga zela eta (urtarrilaren 1etik hasi eta urriaren 31ra arte. Horren emaitza 2009ko martxoaren 27ko desadostasun akta batean dokumentatu zen. Akta horrek zergapetzeko oinarri negatibo batzuk determinatu zituen, 2. ERAKUNDEAK 2003ko urriaren 31n konpentsatu beharrekoak. 1. ZENBATEKOA euro egiten zuten.

Aktak ZAEAREN ikuskapen-ahalmena oinarritzeko, esaten zuen 1. ERAKUNDEAK –talde bateratuko entitate nagusiak– lurralde komunean egiten dituen eragiketen bolumena, 2001eko, 2002ko eta 2003ko ekitaldietan, guztizkoaren ehuneko 75etik gorakoa zela (Ekonomia Itunaren 19.Bat artikulua); kontaketa horretan, Nafarroako Foru Komunitatea lurralde komunean sartzen zuen.

-2. ERAKUNDEAK 2003ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztua zuen Bizkaiko Foru Aldundian. Ingresatu beharreko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikusatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpokoia izateagatik

kuota 2. ZENBATEKOA euro zen. Konpentsatzekoak diren oinarri negatiboen kenketak, halere, ekarri zuen 3. ZENBATEKOA euroko kuota bat. Itzuli beharreko kopurua, berriz, 4. ZENBATEKOA euro da. 2. ERAKUNDEAK itzulketa hori eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari 2009ko maiatzaren 26ko idazkiaren bitartez. Idazki horri 2009ko uztailaren 7an eman zitzaion sarrera-erregistroa Bizkaiko Foru Aldundian.

- Aurreko eskaria ikusita, Bizkaiko Foru Ogasuneko Ogasun eta Finantza Saileko Sozietateen Ataleko buruak idazki bat igorri zuen Foru Ogasuneko Ikuskapeneko Zuzendariordetzara, 2009ko urriaren 26ko datarekin, non informatzen zion eskari horri buruz eta bera eragin zuen ZAEAREN 2009ko martxoaren 27ko ikuskapen-aktari buruz, horren barne dela Estatuko organoaren eskumenaren oinarria. Agiri hori amaitzen zuen esanez ezen "azaldutako guztia dela eta, jakinarazten dizugu entitateari igorritako akta bat badagoela, Ekonomia Ituneko 12/2002 Legeko 19. artikuluan xedatua kasu honetan aplikatzekoa balitz ere".

- 2010eko martxoaren 24an, Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapeneko zuzendariordeak Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeari aurreko eguneko data daraman txosten bat igorri zion, non agertzen baitziren kasuaren aurrekariak, ZAEAREN ikuskapenak bere eskumena oinarritzeko arrazoiak eta informatzaileak eskumenaren aurkako bere iritzia oinarritzeko argudioak. Aipatutako txostena amaitzen da baieztatuz bidezkoa dela ZAEARI inhibitzeko errekerimendua igortzea, hain zuzen ere Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13. artikulua aipatzen duena, zeren eta ez baitu eskumenik 2002ko eta 2003ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergari buruz egindako jarduketetarako eta 1. ERAKUNDEARI akta bat irekitzeko. Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak proposatuta, Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak 2010eko martxoaren 24an erabaki

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikusatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

zuen ZAEA inhibitzeko errekerimendua egitea. Erabaki horri sarrera eman zitzaion Euskadiko ZAEAn 2010eko martxoaren 25ean.

- 2010eko apirilaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundian sarrerako erregistroa eman zitzaion Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren egun bereko idazkiari, inhibitzeko errekerimendua zela-eta erantzuna ematekoari. Idazkiak errefusatu egiten du errekerimendua, garaiz kanpoko izateagatik, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren irizpideekiko desadostasunarengatik ere, azaltzen dituen egitatezko aurrekarien eta zuzenbideko oinarrien indarrez.

- Azkenik, jada aipatu dugun bezala, Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendari nagusiak, 2010eko maiatzaren 18an, erabaki zuen Arbitraje Batzordeari honako gatazka aurkeztea.

3. Halaber, interesgarria da esatea 1. ERAKUNDEAK kontsulta bat egin ziola Foru Ogasuneko zuzendari nagusiari. Hona haren terminoak: "Planteatutako gaia zentratzen da, Ekonomia Ituneko 14.1 artikularen eraginetarako, Nafarroako Foru Komunitatean egiten direla ulertu beharreko eragiketei buruzko interpretazioan, haren 16. artikuluan xedatuari jarraituz; eta, bereziki, zentratzen da argitzean ea ulertu behar den Nafarroako Foru Komunitatean egindako eragiketak lurralde komunean egindakotzat jo behar direla, sozietateen gaineko zergan aplikatzekoa den araudia zehazte aldera".

2004ko abuztuaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako idazkariak 1. ERAKUNDEARI ofizio bat igorri zion, non jakinarazten baitzizkion kontsulta zela-eta egindako izapideak, Ekonomia Ituneko 64. artikuluari jarraituz: erantzunaren zirriborroa Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoari igorri zitzaion, eta haren txostenarekin batera, Ogasun Ministerioari. Zirriborro horretan mantendutako irizpidea zen ezen "Euskadiren eta Estatuaren arteko Ekonomia Itun indardunean xedatuaren eraginetarako, Nafarroako Foru

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

Komunitatean egindako eragiketak ez direla sartzen araubide komuneko lurraldean egindakoen artean". Ofizioari amaiera emateko, honako lerrokada zegoen: "Euskal administrazioek eta bereziki Bizkaiko Foru Ogasunak proposatutako irizpidea ez datorrenez bat Estatuko Administrazioak adierazitakoarekin, kontsulta hau Ekonomia Ituneko 64. artikuluan aurreikusitako Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordearen deialdiaren eta bileraren pentzutan geratuko da. Bitartean, Foru Ogasun honek ezin izango du erantzun".

Izan ere, Ogasun Ministerioko Lurralde Finantzaketaren zuzendari nagusiak, 2004ko maiatzaren 10eko idazki batean, Foru Ogasunaren aurkako irizpideari eutsi zion. Hartan, tesia oinarritzeko argudioak azaldu ondoren, aipatzen du Euskadiko Koordinazio Batzordearen 1995eko apirilaren 7ko erantzun bat badagoela, iritzi bera erakusten duena.

4. Arbitraje Batzordeak 2011ko irailaren 27ko bileran gatazka onartu zuen izapidetzeko, eta ZAEAk, bere zuzendari nagusiaren bitartez, 2011ko azaroaren 17an aurkeztu zituen alegazioak. Alegazioak azaroaren 21ean erregistratu ziren. Alegazioen idazki hori, azaltzen dituen aurrekariaren eta zuzenbideko oinarrien indarrez, amaitzen da Arbitraje Batzordeari eskatuz "deklara dezala ez duela onartzen izapidetzeko BFAk garaiz kanpo sustatu duen eskumen-gatazka, eta subsidiarioki, izapidetzeko onartzeko balizko kasuan, ezets ditzala BFaren asmoak eta, horrenbestez, deklara dezala Estatuko Zerga Administrazioa eskuduna dela 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---1) eta 2. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---2) 2002ko eta 2003ko sozietateen gaineko zerga konprobatzeko eta ikertzeko, Itunean ezarritakoari jarraituz".

5. Espedientea aditzera emanda, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2012ko maiatzaren 22ko idazkiaren bitartez. Idazki horri biharamunean eman zitzaion

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

sarrera erregistroan; eta bertan bere argudioak berresten ditu eta Arbitraje Batzordeari berriz ere eskatzen dio deklaratu dezala ZAEAREN jarduketak, gatazkaren xede direnak, ez direla bidezkoak, zeren eta haien eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena baita.

ZAEAK ez zuen erabili izapide horretan alegazioak aurkezteko eskubidea.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehenengo, ZAEAK gatazka ez onartzeko egin duen eskaria aztertu beharra dago. Eskari hori oinarritzen da Bizkaiko Foru Aldundiak formulatutako inhibizio-errekerimendua garaiz kanpoko izatean. Errekerimendu hori Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1 artikularen emaitza izango litzateke. Erregelamendua, berriz, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaz onetsi zen, eta honakoa dio:

"Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributuan administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatu, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita".

ZAEAK baieztatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak ZAEAREN ikuskapen-akta 2009ko uztailaren 7an ezagutu zuela. Izan ere, data horretan 2. ERAKUNDEAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpokoa izateagatik

bidegabeki hartutako diru-sarrerak itzultzeko eskaria aurkeztu zuen. Honakoa zioen bertan:

"2007ko ekainaren 13an, Ikuskapenak egiaztapen-jarduketa batzuk hasi zituen 1. ERAKUNDEA konpainiaren sozietateen gaineko zerga zela-eta (entitate hori 2. ERAKUNDEAREN akzioen % 99,91ren titularra da) eta 1. ERAKUNDEA konpainia bera zela-eta. 2002koa eta 2003koa ziren konprobatu beharreko ekitaldiak (2003-01-01etik 2003-10-31ra).

III. eranskin gisa aipatutako komunikazio horren kopia gehitu dugu.

Gero, 2009ko martxoaren 27an, egiaztapen eta ikuskatze jarduketa horiek amaitu ziren. Haien emaitza izan zen aldeek desadostasun-akta bat sinatu zutela, ZZZZ erreferentzia-zenbakia duena.

IV. eranskin gisa aipatutako desadostasun-akta horren kopia gehitu dugu.

Garaiz kanpokotasunaren alegazio hori jada ZAEAK erabili zuen 2010eko apirilaren 26ko inhibitio-errekerimenduaren erantzunean; hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak aukera izan zuen hari erreplika egiteko Ikuskapen Zerbitzuaren txostenean, 2010eko maiatzaren 17ko gatazkaren planteamendua baino lehenagokoan. Planteamendu hori formalizatzerakoan Arbitraje Batzordeari igorritako espedientean sartu zen txostena. Honakoak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren argudioak:

- ZAEAK 1. ERAKUNDEAREN aurreko bere jarduketak 2007ko ekainaren 13an hasi zituen, eta 21 hilabetez luzatu ziren, 2009ko martxoaren 27an akta ireki zen arte. Ez denbora horretan, ez gero ZAEAK ez zion Bizkaiko Foru Aldundiari bere jarduketan berri eman, eta hartara ez zituen bete ez lankidetzan jarduteko betebeharra ez eta Ekonomia Ituneko 2007ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko ia izateagatik

uztailaren 30eko Batzorde Mistoaren XVI. eranskinean zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruz ezarritako konpromisoak ere. Akta bakarrei buruzko konpromisoek erreferentzia egiten diete, besteak beste, erroldari buruzko informazioa elkarrekin trukatzeari, ikuskatzeko aurreikuspenak elkarri jakinarazteari, eragiketen bolumena egiaztatzeari eta ikuskatze-jarduketan komunikazioari.

- "Gatazka abian jartzeko epearen kontaketarako hasierak exijitzen du inguruabar bikoitzaren alde aurretik konkurrentzia eta metatzea: errekurtsioa aurkeztutako Administrazioak ezagutzea beste Administrazioak eskumenak inbaditzeko ekintzak egin dituela, eta lehenengo Administrazioak ezagutzea auzitan jarri den gai horretan eskumeneren titularra dela.

Baldintza horien konkurrentzia antzematen zail gertatzen da administrazioetako batek ez duenean bete lankidetzan jarduteko eta informazioa trukatzeko betebeharrak, Ekonomia Ituneko 4. artikuluan eta Ituneko aipatutako Batzorde Mistoan hartutako konpromisoetan ezarritakoak. Inguruabar horiek antzematen zailak baldin badira, are zailagoa da horietako bigarrena, zeinean balorazio-elementu bat baitago, zeren eta, azken batean, baieztapen bat inplikatzeko baitu errekerimendua egiten duen Administrazioak bere eskumenari buruz daukan ezagutza formalaren mailari buruz. Horrenbestez, ez dago behar adinako arrazoirik inhibitio-errekerimenduaren epea kontatzen hasteko ZAEAk nahi duen datan; izan ere, Arbitraje Batzordeak berak defendatu duen proaktibotasun-printzipioa aplikatu behar da gatazkaren iturri den gaia ebatzi ahal izateko".

- ZAEAREN argudioak dio "kontsulta ebatzi gabe egoteak ezin duela berarekin ekarri zergadunak bere zerga-betebeharrak egoki betetzeari



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

buruzko kontrolik ez egotea" (3. aurrekarian aipatutako kontsultari buruz ari da); bada, horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak dio agerikoa dela hau ez dela ebatzi gabe dagoen kontsulta huts baten kasua, baizik eta lotura-puntu bati buruz "oharrak" egin direneko kontsulta baten kasua, eta lotura puntu hori da, batetik, eragiketen bolumena eta, bestetik, Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari aurkeztu izana arbitraje fasera iritsi baino lehen adiskidetasunezko ebazpena emateko. Ekonomia Itunak dio Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordearen fasean akordiorik ez badago, Arbitraje Batzordeari helaraziko zaiola".

Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak Ekonomia Ituneko 64 b) artikulua aipatzen du; haren arabera, kontsultari buruzko oharrik egonez gero, Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzorderako deia egingo da, eta azken horrek akordiorik lortzen ez badu, Arbitraje Batzordeari helaraziko dio. Bada arau hori, Aldundiaren arabera, aginduzkoa da, eta, horrenbestez, Estatuko Administrazioak bere irizpidea baliarazi nahi baldin bazuen euskal administrazioek defendatu eta Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari igorritakoaren gainera, organo parekide horretarako deia egin behar zuen, eta hain zuzen ere gaikuntzarik badu dei hori egiteko.

2. ZAEAk Bizkaiko Foru Aldundiaren argudioei aurre egiten die ondoren, laburbilduta, ematen ditugun arrazoibideekin:

a) Estatuko Zerga Administrazioak Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzorderako deia egin behar zuela dioen argudioari ZAEAk erantzuten dio organo horrek erregelamendurik ez duenez, deialdia ez egiteagatik ezin zaiola Estatuko Zerga Administrazioari Bizkaiko Foru Aldundiari baino erantzukizun handiagorik egotzi. ZAEAk

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikusatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

gehitzen du Estatuko Administrazioak ez zuela (aipatutako Batzordeari) inongo kontsultarik planteatzeko zergaduna dela-eta jarraitutako jarduketei buruz, eta Ekonomia Ituneko ez 64. artikulua, ez 66.ak ez dutela xedatzen jarduketak eten behar direnik kontsulta bat planteatu izatearen ondorioz.

b) ZAEAREN arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak alegatu du ezen, Arbitraje Batzordeak erabakirik hartu ezean, Estatuko Zerga Administrazioak ez duela ez araugintza-eskumenik, ez ikuskapenekorik aipatutako zergari eta aldiei buruz, eta Arbitraje Batzordeak ebatzi bitarte zergadunari ordainarazten zionak eutsiko diola eskumenari. Alegazio hori ez dago jasota Foru Ogasunaren 2010eko maiatzaren 17ko ikuskapen-txostenean, hain zuzen ere gatazka planteatu aurrekoa denean, baina bai 2010eko martxoaren 23koan, zeina inhibizio-errekerimenduaren aurrekoa baita; izan ere, azken horretan baieztatzen da ezen "harik eta eskumen-gatazka ebatzen ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko duela..."

Alegazio hori dela eta, ZAEAK honakoa erantzun du:

"Itunak araugintza- eta ikuskapen-eskumena esleitzen dio Administrazio bati ala besteari inguruabar batzuen arabera (helbide fiskala, eragiketen bolumena, eragiketa-bolumenaren proportzioa), eta inguruabar horiek zergadunak deklaratzeko dituzte; eta, logikoa denez, Estatuko Zerga Administrazioak haiek konprobatu ahal ditu.

Azken batez, legea da, eta ez zergaduna, eskumenaz baliatzeko aukera esleitzen duena, eta zergadun hori da, beste inor ez, eskumena esleitzeko oinarri gisa hartzen diren inguruabarrak deklaratzeko dituenak".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpokoia izateagatik

c) Estatuak bere jarduketan berri Bizkaiko Foru Aldundiari informatu ez izanaren –hartara Ituneko 4. artikuluan ezarritako lankidetzarako betebeharra eta Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko XVI. eranskinean jasotako konpromisoak bete gabe– argudioa dela eta, ZAEAk alegatzen du ez arau hark, ez erabaki hauek "ez dutela ezartzen Administrazio batek besteari bere ikuskapen planean zein zergadun kargatu dituen komunikatzeko betebeharra duenik".

3. 2012ko maiatzaren 22ko alegazioen idazkian, espedientea aditzera emateko izapidean, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Ogasunaren 2010eko maiatzaren 15eko ikuskapen txosteneko argudioak errepikatu besterik ez du egiten, argudio berririk eman gabe.

4. Zalantzagabekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak jakin zuela Estatuko Administrazioak jarduketa batzuk eginak zituela zeinek, Aldundiaren ustez, Ekonomia Ituneko 19.Bat artikuluan ezarritako lotura-puntuak urratzen zituzten, sozietateen gaineko zergari buruzko ikuskatze-eskumenak 2009ko uztailaren 7an esleitzeko. Egun horretan, izan ere, bidegabeki hartutako diru-sarrerak itzultzeko eskaria aurkeztu zitzaion. Bizkaiko Foru Ogasunak berariaz onartzen du ezagutza hori, hain zuzen ere itzultzeko eskari horren bitartez, Sozietateen gaineko Zergaren Ataleko buruaren 2009ko urriaren 26ko idazkian. Bi data horietako edozeinetatik 2010eko martxoaren 25era arte, egun horretan sartu baitzen ZAEAn inhibizio-errekerimendua, bi hilabete baino gehiago iragan ziren, hain zuzen ere Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak horretarako ezartzen duen epea.

Horrek ez du aldarazten Bizkaiko Foru Aldundiak data horietan ezagutzen zuela ZAEAk eginak zituela Aldundiaren eskumenak ustez inbaditzen zituzten egitate batzuk; eta hemen garrantzitsua da ezagutza hori ez zuela lortu Estatuko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpokoak izateagatik

Administrazioaren beraren eskutik, azken horrek lankidetzarako betebeharra ez baitzuen bete. Ukaezina da ZAEAk betebeharrak ez zuela bete. Izan ere, Ekonomia Ituneko 1. eta 4. artikuluetatik heldu den betebeharra da, eta gai hori, gainera, Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko XVI. eranskinean zehaztu zen. Betebeharrak hori betetzea eta, oro har, erakunde-leialtasunaren araberrako jokabide bat izatea ez dira gutxiago exijitu behar haren urratzeak zehapenik ez edukitzeagatik. ZAEAREN alegazio-idazkian ageri den erdeinuzko esaldiak, zeinaren araberrak ez Ituneko 4. artikulua, ez eta Batzorde Mistoaren erabakiek "ez baitute ezartzen Administrazio batek besteari bere ikuskapen planean zein zergadun kargatu dituen komunikatzeko betebeharra duenik", ez du islatzen aipatutako betebeharren aurreko jokabide zuzenik, ezta gutxiagorik ere.

Lankidetzarako eta erakunde-leialtasunerako betebeharrak horrek ZAEA bultzatu beharko zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldearen izaerari buruzko desadostasuna ebaztera, lurralde komunean egindako eragiketen bolumena zenbatesteari dagokionez. Hain zuzen ere, desadostasun hori gatazka hau ekarri duten jarduketak xede diren sozietateetako batek planteatu zuen. Horretarako, ZAEAk Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzorderako deialdia sustatu beharko zuen, Ekonomia Ituneko 64. b) artikuluari jarraituz. Egia da ezen, Estatuko Administrazioak alegatzen duen bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak ere deialdi hori susta zezakeela, baina ZAEA da aipatutako desadostasunaren ebazpenaren menpekora zen eskumenari zegozkion ikuskatze jarduketak egin zituena.

Berriz ere hemen aurkitzen dugu, halere, "adiskidetasunezkotzat" jo daitekeen prozedura bat, zeina ez baita Ekonomia Ituneko bakarra; izan ere, itunaren espirituarekin harmonizatzen baita administrazio interesdunen arteko gorabeherak ebatz daitezela haien arteko akordioek bitartez, beste instantzia batzuetara jo beharrik izan gabe. Hemen ere Koordinaziorako eta Arauen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

Ebaluaziorako Batzordearen deialdia premiatu ez izateak ez du ondoriorik gatazka honen planteamenduari dagokionez. Arrazoa du ZAEAk Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka alegatzen duenean kontsulta baten planteamenduak ez dituela ikuskatze-jarduerak eteten, ezta Ekonomia Ituneko 64. artikuluari erreparatuta ere, auzia Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari aurkezten zaionean. Besterik da, ordea, gatazka Arbitraje Batzordeari aurkezten zaion kasua, Ekonomia Ituneko 66.Bi artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Kontsultako "adiskidetasunezko" prozedura eta gatazkako auzi-prozedura bi prozedura independente dira, nahiz eta lehenengoak ekar dezakeen desadostasuna Arbitraje Batzordeari aurkeztea. Gatazkaren bideak, horren sakoneko gaia denean kontsulta-gaia osatzen duenean, berarekin dakar organo horretara jotzea aurreratzen dela, baina hori organo horren jarduketari buruzko arauen arabera egin beharko da, eta arau horien artean Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1 artikulua dago. Arau horretan jasotako inhibizio-errekerimendua formulatzeko ezarrita dagoen bi hilabeteko epearen laburtasuna inplizituki berretsia izan zen Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 2012ko ekainaren 7ko epaian (9/2011 zenbakiko errekurtoa), seigarren zuzenbideko oinarrian, non baieztatzen baita eskumen-gatazka positiboen kasuak, nola baita gatazka hau, Arbitraje Batzordeari aurkeztu behar zaiola ezarritako epean (hilabete Ituneko Arbitraje Batzordearen kasuan), eta epe hori kontatuko dela errekerimenduaren berariazko ezespenetik edo errefusatze tazitutik hasita eta, horrenbestez, auresuposatu behar da hura garaiz aurkeztea.

Azken batez, aurreko gogoetak direla eta, bidezkoa da baiestea inhibizio-errekerimendua garaiz izateari buruzko alegazioa, ZAEAk aurkeztutakoa, eta, horrenbestez, gatazka hau ez onartzea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
17/2010	R17/2012	2012/11/29	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikusatzeko eskumena. Gatazka ez onartzea inhibitzeko errekerimendua garaiz kanpoko izateagatik

5. Gatazkaren onarpena errefusatuta, ez da bidezkoa haren edukia aztertzea.

Horren indarrez, Arbitraje Batzordeak

## **ERABAKI DU**

Gatazka hau ez onartzea.